



ARGENTINA



PROIEKTUA



"HECTOR VALDIVIESO ESKOLA"

Hiria: **MALVINAS ARGENTINAS**

Probintzia **CORDOBA**

BIZTANLERIA

12.187



MUGAK

- Cordoba
- Suquia Ibaia
- Santa Rosarako bidea

AZALERA

6 km²



MALVINAS - ARGENTINA

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Malvinas Argentinas hirian kokatuta dagoen proiektuak hogeit hamar urte daramatza pobreeentzako hezkuntza-zerbitzuaren alde, fede eta konpromiso zeinu izanik. Hector Valdivieso eskolak auzoko haur, nerabe eta familientzat aukerak irekitzen jarraitzen du; kalitatezko hezkuntza eskaintzen die beste aukerarik ez zuen biztanleriaren sektore honi.

Curriculumaren ikaskuntzan ez ezik, haurren eta nerabeen errealitateei eta ibilbideei modu integralean laguntza eskaintzea du helburu hezkuntza-proiektuak.

Errealitatean planteatzen diren erronken aurrean, eskolako ibilbideei laguntzeko irizpideak eta ekintzak erakitzen jarraitzen du, baita eskola-integrazioei erantzuteko begirada bateratuak izaten ere.

Komunitatean sortzen diren premien aurrean, erantzunak emateko espazioak ere sortu dira. Eremu soziokomunitariotik, zaugarriak diren familien oinarrizko premiei laguntzeaz gain, ikastaroak eta tailerrak garatzen dira, auzoko nerabe eta ama batzuek euren lanbide-sorkuntzei aurre egin diezaioten.

Gazteen etxea, komunitateko gazteei tailerrak eta jarduerak eskaintzen dizkien hezkuntza ez-formaleko beste gune bat da. Eta 2015etik, Bigarren Hezkuntzaren eta Lanbide Heziketaren proposamen bat bultzatzen du. Herritarren bizitzak eta haien familiak eraldatzea dakar honek.


PROIEKTUAREN KOKAPENA

La Salle Hector Valdivieso Eskola Malvinas Argentinas herriko Hirugarren Zatian dago, Colon departamenduan, Cordoba probintzian.

Hiri hau 1983an sortu zen eta Cordoba hiriburutik 14 kilometro ekialdera dago. Bi errepidek lotzen dute, 19ak eta A188ak. Cordoba probintziaren ezaugarri nagusia klima mediterranea da: mendiak, ibaiak, aintzirak, errekek, lautadak, berdeguneak eta basoak... denetarik dago.

12.187 biztanle ditu, probintziak baino % 35 biztanle dentsitate handiagoa, 2010eko erroldaren arabera. Gaur egun eskola-adinean dauden 0 eta 14 urte bitarteko haurrak % 34a dira. Datu horiek agerian utzi zuten biztanleria % 41 hazi zela 2001eko erroldak emandako kopuruarekin alderatuta. Biztanleriak erritmo bizkorrean hazten jarraitzen du.

PARTAIDE KOPURUA

3-5 Pertsona 

PARTE-HARTZE EREMUAK

1. Laguntza psikopedagogikoa eskolan, HHn zein LHn.
2. Eskolako arlo osagarriak: kirola artea...
3. Pastoral animazioa eskolan eta auzoan.
4. Gazte nerabeen animazio soziokulturala Gazteen Etxean.
5. Helduen animazio soziokulturala, batez ere emakume-taldeena.



BOLUNTARIOAREN PROFILA

Haur eta nerabeekin egingo den lana batez ere eskolaren esparruan garatuko denez, garrantzitsua izango da boluntarioak irakaskuntza-prestakuntza izatea edo eskolako jardueretan laguntzeko trebetasun pedagogikoak izatea.

Ingelesa menderatzea balioesten da ikasleei laguntasun tailerrak eskaini ahal izateko, baita familiekin eta auzoko erakundeekin komunitate-lanean jarduteko interesa izatea ere.



BOLUNTARIOEN OSTATUA

Boluntarioa hartuko duen hezkuntza-espazioak eskainiko dizkio elikagaiak, eta Anaien Elkartearen etxean ostatu izatea erraztuko, boluntariotzak irauten duen bitartean, esperientzia komunitarioa partekatzeko. Horretarako, Malvinaseko elkartearen bi etxeetan prest dira 6 boluntarioentzako logelak. Ostatua eskolatik 3 kaletara dago, non boluntarioak egingo dituen jarduerak.







